

bigarren **ALEA**

# ESS MANÍA

#REAS25urte

EKONOMIA INDIVIDUALISTATIK EKONOMIA SOLIDARIOA PASATZEKO ESKULIBURU PRAKTIKOA



**#Atzera  
elikadura  
Solidarioa**  
"EKONOMIA EZ DA EZ  
SORTZEN EZ SUNTSITZEN,  
ERALDATZEN DA ETA  
ERALDATZEN DU"



1995 - 2020  
**25reas**  
red de redes de economía  
alternativa y solidaria

# Partekatzen dugun DNA

## Sare Sarearen Areak

Soziala eta solidarioa denaren DNA dagoeneko odolean barrena dabilkigunez eta gure organo guztiak blaitzen dizkigunez, ezin dugu burutik kendu ekonomia solidarioarekiko kezka. Horregatik, aldizkari berezi honen beste zenbaki bat atera dugu, 25 urtean sarean egin dugun ibilbidea ospatzeko opari modura.

ESS Manía lehen aldiz kaleratu genuenean, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren aurrean sortu genuen pandemia solidarioa izan genuen ardatz. Elkartasunean oinarritutako irakurketa egin genuen gertatzen ari zenaren inguruan, eta egiaztatu genuen ESSak urteak zeramatzala lehenagotik jasaten ari ginen krisiak eta gerora indar handiagoarekin etorriko zaizkigunak gainditzeko proposamenak planteatzen eta alternatibak eskaintzen.

Hazi haietatik kimu hauek. Oraingoan, barrura begiratzea eta mugimenduaren, gure sare eta erakundeen barren-barrenera murgiltzera animatu nahi zaituztegu, batzen gaituzten jardunbideak eta loturak ezagutzeko. Izan ere, jardunbide horiek dira gure aurkezpen-gutunik onena. Jardunbide egoki horiek aurpegia dute, baina beraien errealitateak eta esperientziak gure balioen sakontasunean ezkutatuta geratzen dira zenbaitetan. Eta balio ikaragarria dute, koherenteak direlako eta zabaltzeko eta kutsatzeko gaitasuna dutelako. Horrexegatik islatu nahi izan ditugu orrialde hauetan.

Horrela, beraz, azken balantze sozialean elkarren arteko lankidetzaz-jardunbide bikainak izandako bi entitate ditugu aztergai. Hain zuzen, "soziala eta solidarioa" izatearen funtsa partekatzea da, alegia, gure lokala, gure esperientzien bidez ikasitakoa, kudeatzeko dugun modua edota baterako proiektuak beste batzuekin partekatzea. Baita sareko erakundeen barruan ahal bezainbeste kontsumitzea eta



funtsezko tresnen alde egitea ere (finantza etikoen alde, <adibidez>). Zenbaki honetan aztergai ditugun erakundeek beren bihotza erakutsi ziguten, eta sare osoarekin partekatu nahi izan dugu, haien jardunbideen garrantzia agerian uzteko, haietatik ikasteko eta haien eredia zabaltzeko.

Elkarren arteko lankidetzaz da sareaz biziarazten duten ekimen askoren oinarria, sarearen jatorria ezin baita ulertu antzeko beste erakunde batzuen laguntzarik eta elkartasunik gabe. Ekintzailatza solidario berrietan lagunduz eta jakintzak eta baliabideak partekatuz izan gara energia berriztagarriekin argia eta beroa lortzeko gai, eta horrelaxe sortu ditugu, halaber, telefonia mugikor etiko eta kooperatiboa edota banka, finantza-zerbitzuak eta aseguruak irizpide etikoen arabera antolatzen dituen Finantza Mahaia. Ugariak dira sareaz hornitu duten eta beste enpresa batzuekiko lankidetzazari esker garatu diren esperientziak. Guztien artean, ekintzailatza-esperientzia berri bat nabarmendu nahi dugu, benetako mugarriz baita ekonomia solidarioarako. Rider direlakoez ari gara, zehazki. Mugimendu horrek borroka- eta antolaketa-une garrantzitsuak eragin ditu, eta, beraren baitan, ekonomia solidarioa ekintza eta ekintzailatza kolektiborako paradigma bat ari da eskaintzen, argi eta garbi, esplotazio kapitalistatik ihes egiteko eta, ondorioz, sektorearen duintasuna berreskuratzeko. Ildo horretan, lehen urratsak ESSari lotutako tokiko erakundeen laguntzazari eta aholkularitzazari esker egin ahal izan dituen esperientzietako batera hurbilduko gara.

## # ELKARREKIKO ELKARTASUNA

"Elkarrekin gehiago egiten dugu" ideiarenean logika horrek, halaber, duela bi urte Estatuko lehen topaketa egin zenetik antolatuta zeuden etxebizitza kooperatiboko hainbat erakunde bultzatu ditu beren ahaleginak REAS Sareen Sarearen ekosistemara eta ekonomia solidarioaren mugimendura gehitzera. Formalki, Erabilera Lagapeneko Etxebizitza Kooperatiboko Lantalde Sektorial gisa sartu dira familia handi horretan, eta orrialde hauetan aurkeztu eta ongietorria egin nahi diegu. Eta txalotu eta eskertu egiten dugu beraien ibilbide aberats eta nahitaezkoaz hornitzeko aukera, berriro ere agerian jarritz gure premiarik oinarritzkoenek (hala nola etxebizitza duinak) zentzu handiagoa dutela Ekonomia Solidarioaren esparruan. Izan ere, esparru horretan, kolektiboki eta autokudeaketan oinarrituta, espekulaziotik eta pribatibotasunetik ihes egin daiteke, eta zalantzarik gabe paradigma-aldaketa handia dakarten alternatibak proposa daitezke.

Produktzio etikoa, bidezkoa eta demokratikoa. Banaketa kooperatibo jasangarria eta tokikoa. Kontsumo arduratsua eta autokudeatua, kolektibitatean. Elkarren arteko lankidetzari, jakintzen elkartrukeari, ekintzaitza kolektiboari eta oinarritzko premiei erantzuteari lotutako jardunbide egoki horiek guztiak, esparru etiko, jasangarri eta solidario batean, ESSaren ezaugarri bereizgarriak dira zirkuitu ekonomiko alternatibo bat sortzeko ahaleginean. Azken batean, jardunbide egoki horiekin guztiekin egunero egiten duguna gure Merkatu Sozial propioa sortzea da, hots, duela hamarkada batez geroztik Ekonomia Solidarioa gauzatzeko eta izateko garatu dugun estrategia jorratzea. Bereziki barneratuko gara eraikitzen ari garen sareko ibilbide ekonomiko alternatiboaren baitan, are irmoago ikusteko bide egokitik goazela eta bide horren alde buru-belarri jarraitu beharra dagoela.

Beraz, barruan kontsumitzera eta produzitzera animatu nahi zaituztegu, aipatutako zirkuituari zentzua emateko eta sustatzeko eta, ondorioz, sistema gupidagabe honen piztia zaharra elikatuko duten diru-kapitalaren eta giza kapitalaren ihesak saihesteko. Gogora dezagun berriro badakigula zein den bidea, entzun dezagun arretaz gure taupada, zain ditzagun taupada hori eragiten duten konexioak eta artikulazioak, eta zabal dezagun Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arima.

### KREDITUAK:

Argitalpen hau Reas Red de Redes-en Komunikaziorako Estatuko Batzordeak koordinatutako lana da, eta lurralde- eta sektore-sareetako ordezkariak biltzen ditu. Sarearen 25. urteurrenean egindako aldizkari digitalaren lehen argitalpena da.

**\_Diseinua eta maketazioa:** Juan Carlos de Pablo.

**\_Hizkuntzen egokitzapena:** Miguel Braña, Anna Sánchez, Ángel Urra eta Javier Liras

**\_Itzulen:** Miguel Braña, Anna Sánchez, Belaxe, Koop.E.

**\_Testuak:** REAS Red de Redes, José Luis Coraggio, Genoveva López, Carlos Rey, Blanca Crespo, Jordi García, María Atienza, Sandra Salsón, Confluencia Feminista del FSMET.

**\_Argazkiak eta ilustrazioak:** Lurralde- eta sektore-sareek utzi dituzte irudiak.

Eskerrak:

eskerrik asko argitalpen honetan borondatez parte hartu duten pertsona guztien ekarpenengatik; hasi testuak idazten eta bidali eta zabaldu arte. Edukiak bidaltzea eta gizarteratzea funtsezko ekintza da gure jardueraren berri emateko eta gure proposamenak kutsatzeko. Horregatik, aldeztu aurretik eskertzen dizuegu material hau zabaltzea, eta, jakina, urteurren zoriontsua opa dizuegu!

**#REAS25AÑOS #REAS25Anys #REAS25Anos #REAS25Urte**

Testuak, hurrenkera honetan, hemen argitaratu dira: [Alternativas Económicas](#), [Arainfo](#), [La Marea](#), [El Diario.es](#) eta [Píkara Magazine](#) **#ElkarrekikoElkartasuna**

# Zer egosten da mantso merkatu sozialetan?



## Sare Sareko Areetako Gizarte Merkatuko Batzordea

Merkatu bat beste balio batzuekin sortzea. Ekonomia kapitalistatik ahal dugun neurrian deskonektatzea. Elkarren arteko lankidetzaz sustatzea eta ekonomia sozial eta solidarioaren erakundearen arteko elkartruke ekonomiko gehiago egitea. Merkaturatzeko modu alternatiboak eta eraginkorrak sustatzea. Herritarren kontsumoan eta erosketan publikoetan eragitea. Proposamen ekonomikoak eskalatzea. Sektore estrategikoetan eragitea... Erronka handi horiekin eta komunikazioa, aliantzak eta tresnak lantzeko moduari lotutako jarduketaren proposamen zehatzago batzuekin, oso pozik aterata ginen 2019ko abenduan gure REAS Sarearen Batzarrean Merkatu Sozialari buruz gindako eztabaida estrategikotik.

2020ko urtarrilaren 28a: tea prestatu eta jitsia piztu dugu. Hilero bezala, REAS Sareko Merkatu Sozialaren Batzordeko kideok birtualki bildu gara eta elkar ikusi dugu. Ezin gara besarkatu, baina gure arteko beroa nabaria da, negua bada ere. Abenduko eztabaidaren ondorioei buruzko dokumentua berrikusi dugu.

Tira, itxura ona du, baina nola moldatu hori guztia?

Elkarri kontatzen diogu urtea indar handiarekin hasi genuela, gogo bizia genuela lurraldeen artean estrategiak partekatze eta, eztabaida estrategikoan landutako guztiarekin, aurreko urteetakoak baino asmo handiagoko lan-plan bat lantzeko, merkatu sozialak bultzatzen lagun ziezagun. Eta lanari ekin diogu.

Hilabetez hilabete, Batzordea jitsin elkartu da 2020. urte osoan, lurralde bakoitzean su motelean zer egosten ari den elkarri kontatzeko, elkarrengandik ikasteko, merkatu sozialen koordinazioa hobetzeko eta beste lurralde batzuetako eraketa-prozesuetan laguntzeko. Eta partekatze horretan eman dugu bileretako denbora.

Nolanahi ere, aurrean, Covid-19a gorabehera, ekonomia sozial eta solidarioaren barruan Merkatu Sozial deitzen diogun zirkuitu ekonomiko solidarioa eraikitze urrats txikiak ematen eta erronka berriei aurre egiten jarraitzen dugu. Martxoaz geroztik, beste modu batera jardun behar izan dugu egungo pandemiaren eta krisiaren testuinguruari erantzuteko. Mahai gainean genituen proposamen batzuk gelditu edo mantsotu egin dira, baina egoera berri hori baliagarria izan zaigu estrategiak bideratzeko, barneko ongi zaintzeko eta etorkizunaren plangintza egiteko.




Hemen barruan egosten ari dena

Barrura begiratzeko eta pentsatzen jartzeko ideia horren barruan, Blanca Boix-ek kontatu digu 2019. urteaz geroztik REAS Euskadi erakundeak Merkatu Sozialak Euskadin hartu behar duen bideari buruzko gogoeta-prozesu bizi batean dagoela murgilduta. "Euskadiko Merkatu Soziala osatzen duten erakundeen azterketa zabala egin dugu, eta haien premiak identifikatu eta segmentutan banatu ditugu. Halaber, ikerketa zabala egin dugu Euskadiko merkatu sozialaren eskaintzaren xede-taldea ezagutzeko eta dimentsionatzeko, eta marken nabaritasun-maila, euskal herritarren kontsumo-ohiturak eta ekonomia solidarioari eta hari lotutako balioei buruz duten pertzepzioa zehaztu ditugu. Informazio horrekin guztiarekin, ekintza zehatzak eta segmentutan banatuak bilduko dituen lan-plan bat landuko dugu urrian, Euskadiko merkatu sozialaren merkataritza-garapena lortzeko".

Madrilgo Merkatu Sozialean, "sareko eragileen arteko elkarrekiko laguntzaren kultura hori orain inoiz baino gehiago sustatzeko urratsak egiten jarraitzen dugu", adierazi digu Luis Estebanek. "Gure helburua: elkarrekiko laguntza zenbat eta handiago izan, sarean ekoizleen eta kontsumitzaileen dentsifikazioa zenbat eta handiago izan, orduan eta handiago izango da Madrilgo Merkatu Sozialeko enpresen bideragarritasun ekonomikoa, eta, beraz, gero eta babes-maila handiago izango dute enpresa horietan lan egiten duten pertsonak. Helburu orokor horrekin, hainbat ekintza egiten ari gara hilabete hauetan erakundeetan antzemandako hiru premia nagusiei erantzuteko: lehenik eta behin, hurbiltasuna, gure esku dagoen eta behar duten guztirako hor gaudela senti dezaten; bigarrenik, agerikotasuna eta kontsumoaren mobilizazioa ondasun eta zerbitzuetara; eta, azkenik, merkataritza elektronikoko plataforma baten garapena, pandemiak bizkortutako aro digitalera modu egokian egokitzeko".

Gure elkarriketetan, bazkide kontsumitzaileak ekonomia sozial eta solidarioa hurbiltzeko estrategiak adierazten dizkiogu elkarri, eta June San Millánek Nafarroako Merkatu Sozialaren aurtengo erronka nagusia zein den aipatu digu: #SoyMercadoSocial #MerkatuSozialaNaiz kanpaina abian jartzea eta mantentzea. Kanpaina horren bidez, eta bazkide laguntzailearen figuraren bitartez, barne-kontsumoa sustatu eta sarea Nafarroan hazteko aukera bultzatu nahi dute. "Hona hemen helburuak: gero eta jende gehiagorengana eta gero eta erakunde gehiagotara hurbiltzea, harreman-loturak eta elkarrekiko laguntza-loturak sendotzeko. Gure kontsumoak politizatzea, gero eta alternatiba gehiago eta hobeak eskaintzea eta bere jarrerarekin eta erabakiekin pozik egongo den masa kritiko bat lortzea (eta, horretarako, elkartzeko eta etzabaidatzeko guneak eskaintzea)".

Aragoiko Merkatu Sozialean, "kontsumo-bazkideentzako abantailak sendotzen ari gara, eta, Madrilen eskutik, arriskatu egin nahi dugu eta Etics izenekoak jarri nahi ditugu abian, ESSaren barruko hobari-sistema gisa. Aurten, halaber, agerikotasuna lortzeko, herritarrengana hurbiltzeko eta produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko beste proposamen batzuk aztertzen jarraitzen dugu, hala nola erreferentziako gune bat sortzea (adibidez, Iruñeko Geltoki). Horrez gain, Opcions kooperatibaren babesarekin, ESSaren Market Place bat (kontsumo arduratsurako salmenta-plataforma digitala) abian jartzeko modua aztertzen hasi gara. Baina, tira, astiro-astiro; izan ere, aurten ez zaigu gogorik falta, baina baliabideak bai", adierazi du Susana Ortegak.



**Galiziako REASentzat**, berriz, 2020. urtea oso garrantzitsua ari da izaten merkatu soziala sustatzeko, Ana Lorenzok adierazi digunez. “Azken urteetan bezala, Ben mercado izeneko online salmentako plataformarekin lankidetzan jarraitzen dugu. Tresna horren bidez, kontsumo arduratsua gauza daiteke klik eginez, eta erakunde gehiagok bat egiteko aukera sustatu nahi dugu. Halaber, guretzat erreferentziazkoa den Mostra do Posible azokarekin lankidetzan jarraitzen dugu. Galiziako ekonomia sozial eta solidarioko erakundeen komunikazioa hobetzeko babes- eta laguntza-programa bat atera berri dugu, beren dimentsio solidarioa hobeto eman dezaten ezagutzera, auditoria soziala erabil dezaten, interneten duten presentzia areagotu dezaten eta Ben Mercado-rekin bat egin dezaten. Programa horri esker, REAS bera eta Merkatu Soziala beste erakunde askori ezagutaraz diezazkiekegu. Gure estrategia merkatu soziala Galizia osoko beste antzeko erakunde batzuekin aliantzak eginez eraikitzean eta landa-ingurunera berriratzeko datza”.

Errioxan bezala, Matilde Ballesterosek aipatu duenez. Izan ere, aurtengo urtea oso zaila izanik ere, Errioxako REASen, lurraldeko beste erakunde askorekin aliantzan, **Errioxako Merkatu Soziala** sortzeko iaz egin genuen lanarekin jarraituko dugu: “Erakunde askoz osatutako merkatu sozial sendo bat amesten dugu. Merkatu horrek gure herrien ekonomia suspertuko du, eta frogatuko du landa-ingurunean jarduera ekonomiko errentagarri bat egin daitekeela, herrietan ESSan oinarritutako ekintzailatza pertsonalak eta familia-ekintzailatzak egin daitezkeela eta merkatu sozial sendo batekin landa-ingurune premietako askori erantzun dakiekeela. Landa-ingurune balio tradizionalak (ingurumenaren zaintza, alderdi komunitarioa, lankidetzeta eta abar) aitor daitezzen dihardugu lanean, merkatu sozialaren balioak baitira, azken batean”.

“Ekonomia soziala ekonomia normala dela esateko garaia da, aurtengo udan “hit de l'ESStiu” izenekoan abestu genuenez”, adierazi du Xavier Moyak. Balearretan, “uharte bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta kostatu egiten zaigu loturak estutzea. Nolabait ere, uhartetasuna ESSko erakunde askoren izaeran txertatuta dago, eta ez dugu identitate komun bat osatu nahi. **Mercat Social Illes Balears** erakundearen, identitate hori eratzen eta elkarren arteko lankidetzeta sustatzen dihardugu”. Horren erakusgarri ditugu azaroko azoka birtuala eta prestatzen ari den “Setmana de les economies transformadores” izenekoak.



Geroago, mezu bat iritsi zitzaigun Kanarietatik gure telegram-taldera, eta Anagos sareko Angiek eta Carlosek honako hau adierazi ziguten: “Aizue, aizue! Zertxobait deskonektatuta ibili gara egun hauetan, baina kontaktu nahi dizuegu beste uharteetan, 2020. urtean gertatutakoak eta gure ezaugarri geografikoak gorabehera, gure **Kanarietako Merkatu Soziala** eraikitzeko urrats irrimoak egiten jarraitu dugula. Ekainaz geroztik, gure erakundeek eskaintzen dituzten alternatibak gisa zabaldu ditugu produktuak eta zerbitzuak, erakundeen artean zein sare sozialetan. Eta loturak estutzeko eta elkarrekin konektatzeko ildo horretan, gure azoka presentziala azoka birtual bihurtzeko lanetan ari gara. Azokaren aurretik, zabalkunde-kanpaina bat egiten ari gara sare sozialetan. Bideoen bidez, gure erakundeen bazter guztiak erakusten ditugu, azaroaren 12an aurkitu ahal izango denaren iragarpen gisa. Gune fisiko berean egoteko gogoak badugu ere, goizean izango dugun topaketa eta networkingerako gune batean baino ez dugu sentituko jendearen berotasuna azokan; elkar ezagutzeko, interesa duten beste antzeko erakunde batzuei ateak irekitzeko eta, azken batean, Kanarietako Merkatu Sozialaren eraikuntza bultzatzeko eta bide horretan jarraitzeko gune bat izango da.



## Ardaztu dezagun: ConsumeDentro

2020ko maiatzaren 22an, Batzordearen lan-plana berrikusten ari ginela, merkatu sozialaren urte honetarako estrategiaren erronketako bati erreparatu genion: ESSko erakundeen barruan barne-kontsumoa sustatzea. Egingo al dugu, itsu-itsuan, superkanpaina bat elkarrekin? Niri asko gustatzen zait Madrilek joan den hilabetean egin zuena ("Consume Local, Consume Mercado Social o los grandes de siempre se llevarán el pastizal"). Oso punkia, ezta? Bai, baina ona. Kanpaina hori REAS Sarearen Batzarreko zerrendatik e-maila jasotzen duten pertsonengana ez mugatzea eta erakundeetara, langileengana eta bazkideengana iristea izango litzateke onena.

Tira, aurrera! Eta kanpainari ekin genion. Eta nondik hasiko gara? "Kolaboratibo bat ireki nuen", adierazi digu Blanca Crespok. Une hartatik aurrera, hainbat ideia jaso genituen: barnekoa nabarmentzea, sareek erakundeetara bidaltzeko eta, era horretan, langileei helarazteko moduko materialak sortzea, komunitatea eratzea, elkarren arteko babesa, merkatu soziala zurekin dago, elkarren arteko lankidetzan jardutea, egin bat eta kontsumitu barruan.

Erritmo onean, denak hasi ginen kanpaina gorpuzten, eta kanpainaren bidez jolastea eta esperimintatzea erabaki genuen ezer esan gabe. Gogoan izan genuen abenduko eztabaidan "ESSaren komunitatekoa" izatearen sentimendua lantzeko moduari buruz hitz egin genuela. Halaber, ESSari lotuta gauden pertsona guztiok, ados jarrita, gure premiei komunitateko beste erakunde batzuen bidez erantzungo bagenie sortuko litzatekeen ahalmen izugarriarekin ere amets egin genuen. Eta horrek guztiak eta konfinamenduaren esperientziak #ConsumeDentro sortzera bultzatu gintuzten.

Kanpainaren atal bakoitzak 7H Cooperativa Cultural izenekoaren lan- eta diseinu-taldea osatzen dugun pertsona guztion ekarpenei esker aurkitu du bere lekua. Kanpainari buruz hitz egin dugun bakoitzean, ideiak bateratu ditugu, eta horrela landu dugu gaur egun abian duguna, hots, ekintza kolektibo bat antolatzeko eta guztion arteko askotariko komunitate hau lotzeko kanpaina.

Egingo al dugu bideo bat kanpainarako? Ez, hobeto bi. Logo bat? Beste bat? Merkatu sozialaren markak zer sinbolizatzen duen oraindik ezezaguna baita. Berdin dio, gezia jarriko dugu eta mimetizatu daitezela bi logoak.

Erosketak erregistratzeko webgune bat? Eneeee, hil egingo naute nire lurraldeko erakundeek balantze sozialaren ondoren hau eskatzen diedanean. Ezeeeetz, era dibertigarrian egingo dugu, eta erosketa bat erregistratzen duten bakoitzean gauzaren bat bidaliko diegu, erregistratzeko, merkatu sozialeko erakunde berri bat ezagutzeko eta bertan erosteko gogoia izan dezaten. Bai horixe! Beraz, gauza polit eta zaindu bat diseinatu behar da. Bai, ilustrazioak, mailingak, ipuin bat, narrazio bat edota ESSan zehar gurekin bidaiatuko duen pertsonaia bat. Gelditu, gelditu, zorabiatu egingo naiz eta!

Hortaz, noiz aterako gara? Oraintxe! Airean gaude... [consumedentro.red](http://consumedentro.red). #ConsumeDentro @Alex\_consumeESS.

Hori da hori egin dugun lan itzela eta egin ditugun barre ugariak. Izan ere, istorio honen atal txiki bakoitzaren atzean, kanpainan jarri dugun maitasuna eta ongi pasatzeko gogoia daude. Orain, zain gaude Alexen istorioaren –gure istorioaren– haritik tira egiteko eta gure kontsumo kolektiboa agerian jartzen duen webguneko te-kikara animatua nola bete ikusteko.

Aizu! Merkatu Sozialaren Batzordea, kanpaina nola doan ikusten dugun bitartean, zer egingo dugu? "Ez dugu, ez, lan gutxi hilabete hauetako lan-planean".

Barre eta kezken artean lurralde-estrategiak partekatzen jarraitzea, kanpainarekin kalaka ematea, merkatu sozialetarako estatu-intereseko aliantzak ezartzea, eskaintzeko baterako zerbitzu-pack bat sortzea, [mercadosocial.net](http://mercadosocial.net) berritzea, agerikotasuna eta kontakizuna lantzea, ESSko azoketara joatea eta Merkatu Soziala eraikitzeke gure iraultza honekin topa, dantza eta aurrera egitea.

Tira! Horrek ere itxura ona du.

Bai, kontaktuko dizuegu ESS Manía-ren hurrengo zenbakian.





# Dena errazagoa da lagunek laguntzen badizute: Zámplate Zaragoza, elkar-lankidetzaren eredu

**Rocío Durán Hermosilla/Arainfo**

App baten bidez janaria etxera ekartzeko eskaera lasai egitea, kontzientzia gaiztorik gabe, metropoli handien aukera izan da orain arte, Bartzelonan edota Madrilan egin zezaketen. Delivery etikoaren etena Zaragozara iritsi da, duela bi aste rider talde bat lan-esplotaziotik libre dagoen banaketa egiten hasi baita hirian zehar.

Goiburuak berak adierazten duenez, gauza egiteko beste modu bat badago, eta, Zámplate Zaragoza ekimenaren sustatzaile izan den Aitorren esanetan, «beste modu bat egon badago, eta, gainera, gauzak horrela egin behar dira». «Jendeak onartu behar du banatzaileok, riderrak izan ala ez, lan-baldintza duinak izan behar ditugula. Beste enpresa batzuetan ez dira pertsonak kontuan hartzen, zenbakiak baizik». Horixe da, jakina, banaketako kooperatiba berri honen balio nagusia. Hala, bat egin du beste kooperatiba batzuekin, gehien bat enplegu prekarioa biltzen duen sektorean ekonomia solidarioaren bidea urratzeko apustua egin dutenekin.







**«Hiri aspergarri honetan gertatu den gauzarik sexyenetako bat»**

Izan ere, dena errazagoa da lagunek laguntzen badizute, eta hori da Zaragozako riderrek sortu duten Zámpace Zaragoza kooperatibaren kasua. Aragoiko beste kooperatiba batzuen eskutik jarri dute abian, hala nola La Veloz eta La Cicleríak bultzatuta, eta horien esperientzia eta urteetan finkatu dituzten baliabideak erabili ditu. Ekonomia solidarioan «elkar-lankidetzak» esaten zaio horri, hau da, guneak, baliabideak eta ezagutza partekatzeak erakundeen arteko aliantza. Banaketa-proiektuaren sustatzaile izan da La Cicleríako Arturo ere, eta, bere ustez, kaleetan zehar rider kooperatibistak ikustea «hiri aspergarri honetan gertatu den gauzarik sexyenetako bat da». Kooperatiben arteko proiektua da, «motxilak erosteko ere» horrela jokatu dutela azaldu du Arturok, bere lantegi-kafetegian. Zámpace Zaragozak sortu duen elkar-lankidetzako sare handia Gasteizeraino iritsi da Eramanen eskutik, eta batera erosi dituzte erabiltzen dituzten poltsak.

Aitorrek dioenez, «ezagunak izan arren agian elkarrekin lan egiten ez zuten saltokien sarean sarea ahalbidetu du Zámpacek, eta lehenago ez zegoen mugimendua dago; orain gurekin lan egiten duen ostalaritzako jendeak ez zuen horrelako banaketa-enpresarik erabiltzen, ez zegoelako ados langileen esplotazioarekin, eta orain gurekin hasi dira lanean».

La Veloz ekomezularitzako kooperatibako Carlos Clarimónek ere «balio erantsia» hori nabarmendu du: «Zámpace Zaragoza ez da bakarrik riderren baldintzak hobetzea; horrez gain, rider horiek hurbileko merkataritza sustatzeko bidea izaten ikasten dute. Zámpace Zaragoza, izenak berak dioenez, hurbileko saltokien salmentarako bidea da, jabetxeetatik hasita». Azken finean, hirian den ekonomia solidarioaren eta elikadura jasangarriaren sarearen erakusleia da. «Jarduera horretatik sortzen den balio erantsia tokiko izaera da, tokian bertan egiten dela, multinazionalak parte hartu gabe», azpimarratu du Carlosek.

Orain arte sei establezimenduk egin dute bat sarearekin: Alma Criolla, La Piparra, Ciclería, Malteadora, Mononoke Board Game Café eta Birosta. CoopCycle aplikazioaren bidez edo Zámpace Zaragozaren webgunetik egin daitezke eskaerak. CoopCycle nazioarteko kooperatiben federazioak azpiegitura digitala diseinatu zuen delivery sektorean kooperatiba etikoak sortzea errazteko. Frantziako, Alemaniako, Poloniako, Belgikako, Erresuma Batuko eta Kanadako hogeita hamarren bat hiritan sareak zabaldu dituen elkar-lankidetzako beste modu bat da. Hemen, Espainiako estatuan, eskabideetarako aplikazioa erabilgarri dago jada Madrilan, Bilbon, Gasteizen eta, orain, Zámpacearen eskutik, Zaragozan ere

Arturok bezala, Carlosek ere txantxa egiten du banaketa-enpresa sortzeko prozesuan parte hartu duten tokiko, estatuko eta nazioarteko entitateen eta kooperatiben kopurua dela eta: «Lana oso kooperatiboa izan da». Aipaturiko kooperatibetako bakoitzak bere aletxoak jarri du proiektuan, txostenak eman ditu, sektorean duen esperientzia eskaini du edo materiala bideratu, «horrek asko erraztu du egitasmoa martxan jartzea», Carlosen arabera. «Batetik, markak sortzen duen balio erantsia eta riderren kooperatiba-laneko baldintzak ditugu, eta, bestetik, teknologia lagatzen digun Frantziako beste kooperatiba batekin lankidetzan ari gara», azaldu du..

Kooperatiba eta establezimendu horien guztien laguntzaz gain, industria-sektore handi baten oinarriak astindu zituen beste proiektu etiko baten laguntza ere badute: Frixen kolazko freskagarrien ekoizlearena. «Hirian alternatiboak izateaz gain, hiriko freskagarriak freskagarriena ekoizten duen Frixen enpresaren laguntza izan dugu hasiera-hasieratik. Eskabide bakoitzarekin edariaren litro bateko botila eramaten dugu, sustapen gisa», dio Aitorrek. Hori ez da merkataritza-amua bakarrik, ekonomia solidarioko erakundeen arteko lankidetzaren eta laguntzaren erakusgarri ere bada.

«Hemen guztiok dugu hitza»

Proiektuaren sustatzaileetako bat izan den Lucaren hitzetan, taberna eta jatetxe batzuen banaketa-beharrei erantzuteko sortu zen kooperatiba, establezimendu horiek ez zutelako nahi Deliveroo, Glovo eta antzeko multinazionalekin lan egiterik, horien filosofiaren oinarrian langileen esplotazioa baitago. «COVID-19a dela-eta sortutako bidezko banaketa-beharrei erantzuteko sortu zen, nolabait, Zámpace; tokiko enpresek, batez ere ostalaritzakoek, tokiko eremuan aukera jasangarria eta erakargarria izan zezaten, pandemian zehar asko sufritu baitzuten», ziurtatu du riderrak.

Proiektuari hasiera eman dioten sei establezimenduetako bat den Birosta jatetxeko Chema bat dator. Egitasmoa «zoragarria» dela deritzo: «hein batean gure salbazioa izango zen, atea irekiko zizkigun, lanerako helburu berri bat, gauzak okertzen badira aurrera egiteko aukera». Gainera, ekimenak «establezimenduen arteko lankidetzak sustatu» duela nabarmendu du, banaketaz haratago «erosketak elkarrekin» egitea eta «elkarri laguntzea» ahalbidetu duelako, «eta hori igarri egiten da».

Are gehiago, Txemaren esanetan «baliagarria da ez bakarrik guretzat, baita antzeko ostalaritza egiten duen jende askorentzat ere, balio batzuk dituztenentzat, batasun-puntu bat eman digu... Gaur egun baliabide izugarria da, 2020ko albiste ona izango da».

Nolanahi ere, banaketa-enpresa handietatik eta Aragoi Uberrek duen eraginetik ihes egitea abantaila itzela da proiektuko riderrentzat. Izan ere, Aitorrek dioenez, «gure asmoa negozio-modu etikoa edukitzea da, eta horrek ezberdintzen gaitu. Batez ere tokiko merkataritza bultzatu eta bertako jendearekin lan egin nahi dugu; gainera, maila pertsonalean ere egin nahi dugu lan, ez dadin langileen esplotaziorik egon, ez dadila izan inor hitzik ez duen negozioa. Hemen guztiok dugu hitza eta botoa, guztiok gaude ordezkatuta eta babestuta».



# “Elkarren arteko lankidetzaz gure enpresen jasangarritasuna lortzeko bidea da”

**Blanca Crespok egina**

**Ziurrenik, askok ezagutuko zaituztete, baina ezagutzen ez zaituztetenentzat, aurkeztuko al duzue zeuen burua?**

**Oshito:** Kaixo, Oshito gara, irudiari, bideoari eta multimediarari lotuta dagoen eta Interneten ingurunean lan egiten duen autoenplegu-proiektu bat. Web-orriak, sareetarako kanpainak, bideoak, argazkiak, infografiak eta, funtsean, pantaila batean ikus daitekeen eduki oro egiten dugu.

**Tangente Taldea:** Tangente Taldea gara, kooperatiben kooperatiba bat. 12 erakundek eta 130 pertsona inguruk osatzen dugu guztira. Gure helburua da pertsonen bizi-kalitatea eta ingurumena hobetzea eta, horretarako, hainbat proiektu garatzea, 10 lan-ildotan: kontsultoretza, ekintzailtza kolektiboa, generoa eta ekitatea, ikerketa soziala, herritarren parte-hartzea, komunikazioa, agroekologia, psikologia, etxebizitza kooperatiborako laguntza edo cohousinga, eta lan- eta lege-arloko aholkularitza.





**1\_ Azken balantzean (2019an egindakoan, aurtengo daturik ez baitugu oraindik), zuen erakundea elkarren arteko lankidetzaren alde egindako apustuagatik nabarmendu zen; hau da, lokala, jakintza, kudeaketa, proiektuak eta abar partekatzen dituzue. Kontatuko al diguzue nola eta zergatik egin duzuen apustu irmo hori?**

**Oshito:** Inoiz ez genuen Oshito proiektu itxiztat hartu. Enpresa gisa eratzek gure jarduerari euskarria emango zion nortasun juridiko bat izateko beharrari erantzun zion, baina inoiz ez zen berezko helburu bat izan. Filosofia horrekin, beste proiektu batzuk aurkitu genituen Merkatu Sozialaren barruan, eta haiekin aritu gara elkarrekintzan. Bereziki garrantzitsua izan zen Planea Soluciones enpresarekin ezarri genuen harremana. Proiektuetan lankidetzan jardun genuen, eta harremana berez sortu zen. Bi erakundeetako ezeinek ez zuen bulego egonkorrik, eta, horregatik, "elkarrekin bizitzera joatea" erabaki genuen. Lokal bat aurkitu genuen, eta bertara joan ginen. Proiektuetan, elkarren arteko lankidetzaren erabateko bihurtu da pixkanaka, eta atetik sartzen diren bezero guztien proiektuak, jatorria edozein izanik ere, lokaleko proiektu komunak balira bezala lantzen ditugu. Arestian esan dizuedanez, forma juridikoa komuna denaren zerbitzura jarritako tresna bat izan da beti.

**Tangente Taldea:** Elkarren arteko lankidetzaren da gure lanaren gakoa. Izan ere, Tangente Talde Kooperatiboa elkarren arteko lankidetzaren da funtsean, aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) moduko bat, baina iraunkorra. Lehiaren logika alde batera utzita, gure ustez jakintzak eta ezagutza gehitzeak aukera gehiago ematen dizkigu, eta gure ekintza- eta eragin-eremua zabaldu egiten du. Hori dela eta, gure proiektuak abian jartzean, proiektu jakin baterako (proiektuaren izaera edozein izanik ere) profilik egokiena duten pertsonen osatutako diziplina anitzeko taldeak diseinatzen ditugu ad hoc. Zenbaitetan, Tangente Taldea osatzen duten 12 erakundeen artean, pertsonen lan handiagora egiten dute beste enpresa bazkide batzuekin beren kooperatibako kideekin baino.

Baina ez hori bakarrik. Proiektua ez ezik, lanlekuak ere partekatzen ditugu, eta, lanleku horietan, sormena eta berrikuntza sustatzen duten loturak sortzeko beharrezkoak diren gune formalak zein informalak sortzen dira. Bestalde, arlo operatiboan, bakarka mantendu ezin izango litzuketuen figura tekniko jakin batzuk partekatzen dituzuten taldeak, hala nola komunikazioaz arduratutako pertsona bat eta proiektuetan eta administrazioaz arduratutako beste pertsona bat, baita bitartekarien batzarrak hartutako erabakiak betearazten dituen koordinazio-taldea ere (bitartekarien batzarrak erakunde bazkide bakoitzeko pertsona batez osatuta dago, eta pertsona horiek guztiek indar bera dute erabakiak hartzeko garaian).



**2\_ Azpimarratu beharra dago, halaber, Merkatu Sozialaren alde egin duzuen apustua. Izan ere, zuen gastuen % 46 eta % 37 kontsumitzen duzue, hurrenez hurren, sarearen barruan. Erraza al da zuentzat? Zertan datza zuen erosketa-irizpidea?**

**Oshito:** Zorionez, ez dugu azpiegitura handiegirik behar gure lana egiteko. Hortaz, gure gastuak materialaren erosketari, lokalaren alokairuari, gestoriari eta garbiketa-zerbitzuari lotutakoak dira. Premia horiei erantzuteko garaian, etxera begiratzen dugu lehenik eta behin, eta oso erakunde handia ez bagara ere, gure gastu gehienak Merkatu Sozialaren barruan egiten ditugu. Hain zuzen, alokairua eta ganberen edo ordenagailuen erosketa izan ezik, gastu guztiak inguruan egiten ditugu.

**Tangente Taldea:** Tangente Taldean, garbi dugu behar duguna Merkatu Sozialeko erakunderen batek eskaintzen badu ez garela kanpora joango. Hori da gure arau nagusia. Era horretan, Madrilgo Merkatu Sozialaren (MES) hazkundean laguntzeaz gain, badakigu gizarte- eta ingurumen-justiziako irizpideei jarraituz kontsumitzen dugula. Hori dela eta, MESaren barruan, gure languneko energia, telekomunikazioak eta interneteko konexioa, aseguruak, finantzak eta abar ditugu kontratatuta.

### 3\_ Gainera, finantza etikoen bezeroak zarete, ezta?

**Oshito:** Bai, egia da, baina puntu honetan onartu behar dugu banku tradizional baten bezeroak ere bagarela. Nolanahi ere, ez dugu finantzaketarik erabiltzen. Erabaki hori hartu genuen Oshito sortu genuenean. Zegoena zegoen, eta zerbait erosi ezin bazen, ez zen erosten. Ez dugu finantzaketa-lerro irekirik eduki nahi, eta inoiz ez dugu mailegurik eskatu. Ez dakit etorkizunean erabaki hori aldatuko den, baina badakit hori egitekotan finantzaketa etxean bilatuko dugula.

**Tangente Taldea:** Bai, Coop57 kooperatibaren parte gara, eta zerbitzu batzuk Fiare eta Caja Laboral Kutxa erakundeekin ditugu kontratatuta. Gure ustez, finantza etikoei lotutako zerbitzuek ekonomia sozial eta solidarioaren barruan bultzatu beharreko sektore estrategiko bat osatzen dute. Izan ere, erakunde horiek zenbat eta sendoagoak eta indartsuagoak izan, orduan eta aukera gehiago izango ditugu gainerakook gure jasangarritasun ekonomikoa lantzeko.

### 4\_ Urteak daramatzazue balantze sozialaren auditoria prozesuan hain emaitza onak lortzen, ala hobetu egin duzue pixkanaka? Zer ikasi duzue tresna horrekin, gure printzipioen gutunarekin gero eta koherenteagoa den enpresa bat izateko egin duzuen hobekuntza-ibilbide berezian?

**Oshito:** Nik uste dut azpiegitura handirik behar ez dugulako ditugula emaitza onak; era horretan, errazagoa da proiektuaren funtsari eustea. Gainera, gure lan-ingurunea gure harreman pertsonaletatik oso hurbil dago, eta, beraz, filosofia barneratuta dugu. Lankidetzak edo kontratuak egiten ditugunean edota norbait proiektu jakin batean lan egitera etortzen denean, hori da lehenik eta behin argitzen duguna. Ez dugu etekinik banatzen, ez dago soldata-desberdintasunik, eta proiektu bakoitzaren inguruko erabakiak arrazoi teknikoetan oinarrituta hartzen dira. Arazoak badaude, lanaren parte gisa onartu eta denen ekarpenekin konpontzen ditugu. Zorionez, oso nagusi onak izan nituen Oshito sortu aurretik, eta, proiektuen koordinatzaile gisa, beti izan dut garbi ez dudala inorekin eztabaidan jardun nahi eta ez diodala inori errietarik egin nahi.

**Tangente Taldea:** Balantze soziala lagungarria da gure barne-prozesuetan berriz pentsatzeko eta etengabeko hobekuntzaren aldeko konpromisoa hartzeko. Autoebaluazioaren galdera batzuek oinak lurrean jartzen lagundu digute. Izan ere, galdetzen diren ekintza eta jarduketetako asko era informalean egiten ditugu beharbada, eta ez ditugu plan zehatz batean formalizatuta eta gauzatuta. Eta hori egokitu egin behar dugu. Adibidez, amaitu berri dugun gure azken Plan Estrategikoan, ingurumen-ikuspegia txertatu dugu Aginte Taula Integrala osatzen duten lau tradizioetan (prestakuntza eta hazkundera; bezeroak; finantzak; eta barne-prozesuak).

### 5\_ Izan gaitezen autokritikoak. Izan al duzue nahigabe edo mugarik elkarrekiko harreman horiek ezartzeko garaian?

**Oshito:** Bai, jakina, eztabaidan aritu gabe eta errietarik egin gabe erabakitzeak hitz desegokiak eta oihuak saihesten ditu, baina badu bere alde txarra ere. Zenbaitetan, ez dakizu nola egin aurre arazo horiei, eta etsipen eta frustrazio handiak izan ditut. Proiektuak ongi ateratzen ez direnean, errudun sentitzen zara ezinbestez. Jendea sartu eta irten egin da, eta agurrak inoiz ez dira atseginak. Taldearen zati batek funtzionatzen ez duela eta proiektu bat suntsitzen ari dela ikusten duzunean, erantzukizun bikoitza duzu. Alde batetik, aurpegia eman behar duzu azken bezeroaren aurrean, eta ahal bezain ongien konpondu behar duzu enkistatuta dagoen proiektu bat, horretarako bizitza pertsonalari edo beste proiektu batzuei kentzen dizkiezun denbora eta baliabide asko erabili behar badituzu ere. Bestetik, oso gogorra da “hau ez doa ongi” esaldiarekin hasiko den elkarrizketa bat egitea. Inoiz ez da “kaleratzerik” izan hitzaren esanahi hertsian, baina 10 urte hauetan izan dira joan direnak, eta erabaki hori beti elkarren arteko adostasunez hartu bada ere, porrotaren zaporea geratzen da giroan, eta hori kudeatu beharra dago. Haustura emozional gogorra da. Halaber, sentsazio gazi-gozo bat izaten dugu gure ohikoetako norbaitekin landu dugun proiektu bat amaitu eta entregatzen dugunean. Sasoiaren araberako sektore batean gaude, eta jende gehiagoko talde bat egonkortzeko adina lan-bolumen izan nahi genuke. Egia esan, nahi baino pertsona finko gutxiago gara, eta gurekin talde gisa ongi lan egiten duten lankideekin modu iraunkorrean aritzerik ez duzula jakiteak min ematen du, proiektu bat amaitu eta aulki bat hutsik geratzeak min ematen du.

**Tangente Taldea:** Egia da zenbaitetan proiektuak korapilatu egiten direla, kontziliazio- edo soldata-politika desberdinak dituzten erakunde desberdinekin lortu behar baitira akordioak. Adibidez, 4 erakunde desberdinen artean (Tangente Taldekoak zein bestelakoak) lantzen ari garen proiektu berean, gerta daiteke oporren eta lan-ordutegiaren inguruko politikak desberdinak izatea, eta, beraz, hitz egin beharra dago pertsona guztiek baldintza berak eduki ditzaten.

**Amaitzeko, aipatuko al zenigukete elkarren arteko lankidetzaz-jardunbide errotu horren inguruko une edo oroitzapen onen bat, eta egingo al duzue sareko gainerako erakundeetan eta ekonomia solidarioan eredu hori zabaltzeko gonbidapena?**

**Oshito:** Egia esan, aurreko galderan deskribatutako uneak kenduta, gainerako guztiak onak dira. Bereziki polita izaten da ordu asko eskatu dizkizun proiektu bat amaitu eta estreinaldia iristen den unea, edota kanpaina bat aurkezten duzun unea... jendearen erreakzioa ikustea oso berezia da. Nolabait ere, biluzik agertzen zara jendearen aurrean, zuzentzeko marjina oso txikia baita. Irribarre bat ateratzen diezunean edo haien gogobetetzea ikusten duzunean, une hori askatzailea eta atsegingarria da. Eredua zabaltzeko gonbidapen bat? Zintzoki, uste dut Merkatu Sozialean gabiltzan guztiok garbi daukagula elkarren arteko lankidetzaz dela gakoa; ez dut uste inor hemen egongo litzatekeenik lankidetzaz bere DNAREN parte ez balitz. Funtsean, uste dut Oshitok halabeharrez duela adierazlerik onenetako bat. Zorionez, familia handia osatzen dugu, profesional handiak ditugu eta proiektu handiak ditugu aurrean. Hortaz, hazkundera saihestezina da, eta urte batzuen buruan, erakunde guztiok bikoiztu egingo dugu ehunekoa. Duela urte batzuk argia geure kooperatibaren bitartez kontsumituko genuela esan izan baligute, ez genukeen sinetsiko, eta, hara, horrela gaude.



**Tangente Taldea:** Taldearentzat, unerik ederrenetako bat Madrilgo MARES proiektua eman zigutela jakinarazi zigutenekoa da. Hiru urteko proiektua zen, Europako Batzordearen finantzaketa zuen, eta Tangente Taldeko ezein erakunde bazkidek ez zuten lortzeko aukerarik izango bakarka. Gainera, hain proiektu handia zenez, Tangente Taldeko bazkideak ez ziren beste erakunde batzuekin lankidetzaz jardun genuen, hala nola Ecooo, Dinamia, VIC, Todo por la Praxis eta Acción Contra el Hambre erakundeekin. Zalantzarik gabe, gure enpresen jasagarritasunerako bidea elkarren arteko lankidetzaz zela eta dela berretsi zuen horrek.

*\*Blanca Crespo REAS Sareen Sareko komunikazio-arduraduna da*





# Etxebizitza sozial kooperatiboaren paradigma berri baterantz

*David Guàrdia, REAS Sareen Sareko erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiboko lantaldeko kidea.*

**Etxebizitza-kooperatiba, etxekidetzak, cohousinga, erabilera-lagapena, erabilera-eskubidea, elkarlaneko etxebizitza... izen asko erabiltzen dira —esanahi berarekin edo beste batekin— etxebizitza komunitarioa eta ez-espekulatiboa eskuratzearren eta kudeatzearren errealitatea deskribatzeko. Edonola ere, eredu bakarra dago, ala asko? Zertan datza, zehazki?**

Oinarrizko elementu batzuk zehatz genitzake, hala nola etxebizitzaren edo higiezinaren jabetza kooperatibarentzat (bertan bizi diren bazkideei haien gaineko titulurik eskualdatu gabe), bazkideek bertan denbora-mugarik gabe edo oso epe luzean bizitzeko eskubidea, parte-hartze eta kudeaketa demokratikoa, ekarpen ekonomikoak (gehienak aldizkakoak —alokairu baten antzekoak— eta kostaprezioan), etxebizitzaren erabilera-eskubidearen eskualdatzea era ez-espekulatiboan eta kooperatibaren bitartez, eta, azkenik, erreplikagarritasun-borondatea eta kooperatiba-erregimeneko etxebizitza sozial eta eskuragarrien parkea handitzeko borondatea.

## **Gizarte-inpaktu handiko eredu ez-espekulatiboa**

Elementu horiez gain, ereduak bultzatzen dugun kooperatibek eta beste erakunde batzuek, REAS Sareen Sarearen bitartez (ordezkaritza-erakunde gisa), ekonomia solidarioa eta eraldatzailearekin konprometitutako eredu bat sustatzen dugu.

Lehenik eta behin, Merkatu Sozialaren aldeko apustu irmoa eginez, ekonomia solidarioaren ekosistema indartuko duten ondasun eta zerbitzuez hornitzeko (finantza eta aseguru etikoak, arkitektoen kooperatibak, gizarteratzeko eta laneratzeko edota industriako enpresa

hurbilak eraikuntzan, sektoreko kontsultoretzak eremu fiskal, ekonomiko eta juridikoan, laguntzeko eta bideratzeko taldeak, energia berdearen merkaturatze-etxe kooperatiboak eta abar).

Bigarrenik, barne-dinamika komunitarioak sortuz, barneko gune partekatuekin (jantokia/sukaldea, liburutegia edota lan edo ikasketa partekatuko gela, gonbidatuen gunea, erabilera anitzeko gunea eta abar), kanpoko gune partekatuekin (auzoko edo inguruneko bilberako erabilerak ahalbidetuz) eta zerbitzu partekatuekin (zuntz optikoko linea bat, adinakoentzako zerbitzuak eta abar).

Halaber, ahaleginak egin behar dira energia-efizientzian, jasagarritasunean, klima-aldaketaren aurkako borrokan eta gizarte-inklusioaren eremuan, eta kalteberatasun berezia duten pertsonentzako edo profil espezifikoa dutenentzako (indarkeria matxistaren biktimak, iheslari eta migratzaileak, tutoretzapean egon diren gazteak eta abar)

etxebizitzak bultzatu behar dira. Halaber, ekimen sozioekonomikoak sor daitezke ekonomia solidarioaren eremuan, kooperatiba-lokaletan oinarrituta (dauden lekuetan), eta kontsumo arduratsua eta beste ekimen batzuk susta daitezke biztanleen taldearen barruan (hala nola elikadura-kontsumo ekologikoa eta hurbilekoa).

## #ELKARREKIKO ELKARTASUNA

Edonola ere, ereduaren funtsa jabetza kooperatibo mugagabearen, biztanleei etxebizitza erabiltzeko eskubidearen lagapen edo esleipenean (eskubide erreal gisa bideratzeko inolako beharrik gabe) eta bazkideek etxebizitza aske eskualdatzeko ezintasunean (bazkideek ez baitute inolako jabetza-titulurik) datza nagusiki. Oso soziala eta ekologikoa den, baina pribatizatu daitekeen proiektu bat ez da proiektu eraldatzaile bat. Eta, horregatik, normalean ez ditugu cohousinga edo etxekidetzat aipatzen, cohousing bat (hau da, bizikidetzat-eredu partekatutako bat) oso formula juridiko desberdinetatik abiatuta egin baitaiteke, baita jabetza pribatua oinarrituta ere. Nolanahi ere, cohousinga (edo, zenbait kasutan, colivinga) erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiboko ereduaren balioetako bat da. Gure ustez, formula kooperatiboa da irabazirik eza eta kudeaketa demokratikoa hobekien bermatzen dituen. Eta erabilera-lagapena diogu, etxebizitzaren edukitza-erregimena argitzeko eta jabetzako etxebizitza kooperatiboaz bereizteko.



Etxebizitza inbertsio-ondasuntzat hartu ordez etxebizitza eskuratzeko eskubidea epe luzera bermatzeko erabilera-ondasuntzat hartzeak bereizketa nabarmena ezartzen du eredu kooperatibo tradizionalarekin. Estatu espainolean, etxebizitza-kooperatibek dozenaka mila etxebizitza eraiki dituzte. Sustapena egin ondoren, jabetza bazkideei esleitu zaie, eta, era horretan, ekonomia sozialetik desagertu egin dira (bazkideak eta adreiluak). Hau da, dinamika kooperatiborik gabe (eskuratzaileak etxebizitza eskuratzeko egiten baitira kooperatibako bazkide) eta etxebizitza soziala edo eskuragarria sortzeko politikarik gabe (etxebizitzak merkatu libreratzen baitira). Kasurik onenean eta zenbait erkidegotan, eredu hori babes ofizialeko etxebizitzekin garatu da, eta, beraz, prezio arautuarekin aldi jakin batean (oso gutxitan babes mugagabearekin).

Kooperatiba-eremuan nagusiki jabetza-eredu baten aldeko apustua egin izanaren ondorioz, gaur egun erabilera-lagapeneko 200 etxebizitza baino gutxiago daude Espainian kooperatiben esku. Quebecen, berriz, 30.000 etxebizitza kooperatibo eskuragarri daude 1.300 kooperatibatan banatuta, eta Uruguain beste 30.000 (herrialdeko etxebizitza guztien % 2,58). Suitzan, bestalde, 1.500 kooperatibak baino gehiagok nazioko higiezin-ondarearen % 8 inguru biltzen dute, eta Danimarkan ere ehuneko bera dute, baina etxebizitzak 10.000 kooperatibatan banatuta daude. Hala ere, azken kasu horretan, 90eko hamarkadako ereduaren desarauketa eta liberalizazioa kolpe handia izan zen etxebizitzaren eskuragarritasunerako. Hori dela eta, ereduaren funtsezko erronketako bat ereduaren ziurtatuko duen lege-esparru egonkor bat lortzea da.





**GUANYEM TERRENY A L'ESPECULACIÓ!**

SOSTRE CIVIC

## Gainditu beharreko erronkak

Nola egin dezakegu oraingoz txikia eta hasiberria den eredutik eredu finkatu eta eskalagarri baterako bidea? Hainbat erronka ditugu aurrean.

Lehenik eta behin, joko-arauak erraztuko dituen, baina, batez ere, eredu babestu eta kooperatiba-modalitate desberdin baterako eraldaketa edo etxebizitzaren salmenta galaraziko duen lege-esparru bat behar dugu. Hori, zalantzarik gabe, Autonomia Erkidegoaren eskumena da (kooperatibei edo etxebizitzari buruzko legeen bitartez garatzen bada), baina finantzaketarekin ere lotu daiteke, Kanadan edo Quebecen bezala. Egungo Estatuko Etxebizitza Planaren bidez, kooperatibei zuzendutako baliabide ekonomikoek ekarpena ereduaren interes orokorreko elementuak bermatzearen baldintzapean jar liteke.

Etxebizitzen sustapena eta eraikuntza edo birgaitzea sektore konplexua eta oso teknikoa da, eta arrisku handia du hainbat mailatan. Esperientzia duten talde tekniko fidagarriak behar dira (sustapenaren kudeaketan, arlo fiskalean, juridikoan, sozialean eta abar), eta beharrezkoa da talde horiek ereduarekin bat egitea eta, batez ere, ekonomia solidarioaren barruan egotea. Gaur egun, sektorea ez da behar bezain sendoa, eta funtsezkoa da talde tekniko horiek sortu eta finkatzeko aukera bultzatzea, proiektuak eta haien bideragarritasuna sendotzeko eta hainbeste jenderen borondatezko dedikazioa jasagarria izan dadin lortzen laguntzeko.

Komenigarria izango litzateke Autonomia Erkidegoan eta Estatuan egituratutako eta antolatutako sektore baterantz aurrera egitea, proiektuen arteko lotura eta elkartrukea hobetzeko eta, bereziki, sektorea ordezkatzeko eta elkarrizketa politikoa eta eragiteko ahalmena hobetzeko. Hori dela eta, aurreko proiektuak eredu horretan biltzeko lantalde bat sortu da REAS Sareen Sarearen barruan. Hori oso berri ona eta bikoitza da: alde batetik, REAS Sareen Sarea sektoreari ematen ari zaion babesagatik, eta, bestetik, sare konfederal hori sendotzeko eta proiektu berriak ekonomia solidarioaren koordinatuetan kokatzeko.

Epe luzera, halaber, kooperatiba-egitura federatuak sortu edota egungo etxebizitza-kooperatiben federazioak (gaur egun nagusiki jabetzako etxebizitzaren kooperatibismoari lotuta daudenak) erabilera-lagapeneko eredu horretara bideratu beharko dira. Eredua helduen dagoen herrialdeetan, kooperatiben federazioek babes eta aholkularitza teknikoa, juridikoa eta ekonomikoa eskaintzen dute doan proiektu berrietarako, dokumentu-ereduetarako, prestakuntzarako eta abar.

Egungo finantzaketa-zailtasunak gainditu behar ditugu, banka publikoa izanik.

Nolanahi ere, erronkarik handiena da etapa hau gainditzea (proiektuak ahalegin pertsonal handiei eta aitzindariak diren administrazio publikoen konplizitate gutxi batzuei esker eramaten baitira aurrera) eta maila guztietan babes publiko eta egonkorra jasoko duen, eskalagarritasuna erraztuko duen, bazkide biztanleen gizarte-aniztasuna handituko duen eta eskuragarritasuna bermatuko duen eredu bateragarri batera jotzea.





## Interes orokorreko eta babes publikoko eredu

Erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatibo bat hainbat testuingurutara egokitu daitekeen askotariko errealitate bat izan daiteke, baina funtsezko kontua da etxebizitza sozial eta eskuragarriaren premiari ere erantzun diezaiokeen eta herri xeheak etxebizitza izateko duen eskubidea bermatzeko eredu egokia eta etxebizitza sozialeko politika publikoekin bateragarria izan daitekeen ala ez. Kooperatiben eta ekonomia solidarioaren mundua eremu horretan lankidetzatza publiko kooperatiboko eredu bat planteatzeko gai izatea apustu estrategikoa da.

Lehenik eta behin, administrazioak lurzorua lagatzeko aukera sustatu behar da. Katalunian frogatu denez, eredu horrek dimentsio komunitarioa eta eraldatzailea izateaz gain, etxebizitza soziala sortzen du. Lurzoru publikoa 75 urtez azalera-eskubidean lagatzeak (Bartzelonako Udalak bereziki, dagoeneko udal-orubeen inguruko 10 proiektu sustatu baititu zuzeneko esleipenaren edo lizitazio publikoaren bidez) Estatu osoko erabilera-lagapeneko lehen etxebizitza kooperatiboei babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazioa ematea ahalbidetu du.

Bigarrenik, neurri ekonomikoak eta fiskalak bultzatu behar dira ereduaren benetan eskuragarria izan dadin. Aurrerapen esanguratsuak egin dira, hala nola Estatuaren Etxebizitza Planaren erabilera-lagapena txertatu izana eta, horren ondorioz, zenbait erkidegotan etxebizitza sozial kooperatiboa sustatzeko zuzeneko diru-laguntzak

eman izana. Hala ere, ibilbide luzea geratzen da eremu ekonomikoan (etxebizitza eskuratzeko eta kooperatibizatze laguntzak, errenta txikiak dituzten kooperatibistentzako laguntzak hasierako ekarpenei aurre egiteko), eremu fiskalean (erabilera-lagapeneko kooperatibak bereziki babestutako kooperatibatzat hartzea, BEZaren egungo tasaren murrizketa, udal-hobariak eta abar), finantzaketa publikoan (KOI) eta finantza- eta berme-tresnak bultzatzeko zereginean.

Bestalde, ereduaren sustatzeko eta finkatzeko aplikatu litezkeen hainbat motatako neurri asko daude. Adibidez, gogorazi beharra dago gaur egun Kopenhageko 3 etxetik 1 kooperatiboa dela, Danimarkako maizterrek kolektiboki kooperatiba gisa eratzeko eta bizi ziren eraikina erosteko eta finantzatzeko izan duten eroslehentasun-eskubideari esker.

Espero dezagun, beraz, REASeko erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiboko lantalde berriak gai hauetan eta beste askotan sakondu ahal izatea, bizitzeko beste modu osasungarriago, ekologikoago eta komunitarioago bat nahi duten talde teknikoak elkartzeko eta proiektuak trukatzeko aukera ematea eta epe luzean etxebizitza sozialeko eredu bat sortzen laguntzea. Eta, era horretan, erakustea oinarrizko premiei (hala nola etxebizitza duina eta eskuragarria izateko eskubideari) erantzuteko gune naturala ez dela merkatu librea, ekonomia solidarioa baizik.



# EKONOMIA FEMINISTARAKO TRESNA SORTA BAT, ERAKUNDE BIZIGARRIAGOAK AHALBIDETZEKO

## María Atienza

Hemen proposatzen dizkizuegun tresnak REASko hainbat erakundek eta sarek prestatu dituzte, lanerako espazio eta modu erantzunkideagoak sustatzeko, Ekonomia Solidarioako erakundeak bizigarriagoak izan daitezzen eta begirada feministagoa izan dezaten.

### **BIZIGARRI genero-berdintasunaren aldeko plana.**


2018-2022 aldirako genero-berdintasunaren aldeko plana REAS Euskadiren egituran eta erakundeetan ari diren pertsonen egindako lan handiaren emaitza da. Helburua da dokumentu bizia izatea, hau da, malgua izatea eta, era berean, gaiak eta prozesuak egokitzea planaren bitizan zehar erakunde gisa etorriko zaizkigun uneetara. Gainera, lortu nahi ditugun eraldaketetarako gida bat izateaz gain, saiatu gara dokumentuari nolabaiteko izaera pedagogikoa ematen, bide horretan ikasitako guztia erakuste aldera.

### **Erantzunkidetasun-praktikak Ekonomia Sozial eta Solidarioan aztertzeke gida.**

Gidak Ekonomia Solidarioan diharduten erakundeetako emakume eta gizonei lagundu nahi die ekonomia molde horretako erantzunkidetasun-praktikak hobeki ulertzen eta praktika horien irismena neurtzen, egiazki eraldatzaileak eta estrategikoak ote diren azter dezaten. Azken buruan, ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioak egiazki aplikatzen lagundu nahi du, enpresa bizigarriak eta bideragarriak lortze aldera. Horretarako, gidak praktika zehatzei buruzko hainbat adibide dakartza, bai eta praktika horiek aztertzeke galderak ere. Gida Erantzunkidetasunari buruzko Praktikara bideratutako Ikaskuntza Komunitatearen lanaren emaitza da, betiere Madrilgo MARES proiektuari lotua. Zehazki, REAS Madril-en eta Gizarte Merkatuan ari diren pertsonen eta erakundeek parte hartu dute, bai eta bertako Feminismoen Batzordeak ere.

### **ERAIKI, ZAINDU, BIZI: Praktika feministak ekonomia solidarioan ari diren erakundeetan**

“Papeles de la Economía Solidaria” argitalpenaren seigarren zenbakian, hainbat gogoeta plazaratu dira nola eraiki, nola zaindu eta nola bizi azaltzeko, eta hainbat praktika feminista ere azaldu dira, Ekonomia Solidarioaren erakundeak begirada ez patriarkaletatik eraikitzeari buruz.



### XES sarearen genero-behaketarako tresna

Gida hau Kataluniako Comissió d' economies feministes de la XES sareak egin du. Horrela, erakundeetako espazioetan diren dinamikak behatuz eta dinamikei ikusgaitasuna emanez, gida lagungarria da bilera, ekitaldi, saio eta bestelako jardueretan ezartzen diren harremanak generoaren ikuspegitik kokatzeko.

### Fem Check: Egiaztapen feministako zerrenda bat eta erabilera-eskuliburua

FEM\_CHECK: Emaús Gizarte Fundazioa erakundearen argitalpen bat da, Mugarik Gabe erakundearekin elkarlanean prestatua. Egiaztapen-tresna honek gure aukeren jarraipena eta ebaluazioa erraztu nahi ditu, berariaz genero-ikuspegitik. Lagungarria izan dakiguke analisia sustatzeko eta, horrez gain, egiten dugun hartan eta egiteko moduan aldaketa feministak bultzatzeko. Tresna hau jarduera zehatzetan erabili ahalko dugu (tailerrak, materialak prestatzea, etab.), bai eta prozesu zabalagoetan ere, hala nola proiektu baten gauzapenean bere diseinutik bukatu arte edota antolaketa-plangintzarako prozesu batean.

### Berrogeialdia ikuspegi feministarekin bat emateko materialak.

Elkargune feminista sare, erakunde eta taldeek osaturiko gunek bat da, Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Foro Sozialaren baitan sortua. REAS Sareen Sarea hasieratik ari da parte hartzen. Bada, elkargune horrek esteka-zerrenda bat prestatu du ikuspegi feministatik, baliabideez, artikuluez eta bibliografiaz COVID-19aren krisiari buruz, betiere gogoeta eta elkarrizketa sustatzeko, eta gainerako ekonomia eraldatzaileekin egituraturik.

### PAAF Protokolo Aktibo Asanbleario Feminista

PAAF siglek garbiketarako edo oloioztatzeko sprayak gogora ekartzen badizkigute ere, Protokolo Aktibo Asanbleario Feministaren akronimoa dira, Aragoiko EsyS erakunde feminismoen taldeek prestatua. Materialaren helburua da batzar eta bileren funtzionamendua hobetzea, eta molde errazak eta zehatzak proposatzen ditu batzarren aurrekoa eta bitartekoa prestatzeko, foileto txiki baten bidez, rol-txartelen bidez eta laburpen-infografia baten bidez. PAAFe gure batzarrak dinamizatzen lagundu nahi dugu, jarrera matxistarik ez izateko; entitate guztietan pertsonak aintzat hartu behar dira eta, horretarako, lehenik, haien guztien ahotsak entzun beharko dira.

### Zainketak lantzeko eskuliburua

Erakunde bizigarriak ikuspegi feministatik eraikitzeak gure lan-ereduak zehaztu eta ulertzeko modua eragiten eta eraldatzen du. Logika merkantilistak, produktibistak eta patriarkalak gure erakundeetatik kanporatzea oso eraldaketa sakona da eta, hartarako, ez dago, ez eskulibururik, ez errezeta magikorik. Ekosolfem REAS Euskadiko lan talde bat da eta material hau aurkeztu du, lantzearen metafora erabiliz, ekonomia solidarioari gonbidapena eginez erakunde bizigarriak eraiki ditzan. Izan ere, feminista soilik baldin bada, izanen da ekonomia solidarioa.







Deskargatu eta koloreztatu!



# Kontsumismotik ihESS egin!!

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren SCAPEROMera jolastera gonbidatzen zaitugu: "Kontsumismotik ihess egin". Jolas horri esker, proba dibertigarri eta burutsuen bidez, ekonomia sozial eta solidarioaren (ESS) kontzeptu eta tresnetan sakontzen da, eta, aldi berean, Kanarietako ESS ekimenak ezagutzen dira, sare horrek egin baitu azken azokaren esparruan.

Edonork jokatu ahal izango du Interneten, ordenagailu edo gailu mugikor batetik. Jokoaren zuzeneko sarbidea hemen aurkituko duzue

Nik kontsumismotik ihESS egin nuen!!

ESScapeRoom

Un juego donde tendrás que demostrar lo que sabes sobre la Economía Social y Solidaria, superar las pruebas y salir victoriosa.

El tiempo corre... ¿Estás preparada?

Comenzar

participa en [redanagos.org](http://redanagos.org)

## Saretu eta jokatu!

Jolastu Ekonomia Solidarioarekin, eta erakutsi Sarez eta mugimenduz dakizun gutzia.

ESS Trivial delakoaren estekan sartu eta REAS sarean sartzera gonbidatzen zaitugu, bigarren ESS Mania honen edukiez eta proposamenez ondo ezagutzen duzula frogatzeko.

Azken fasean gaude, eta saria prest dugu; beraz, azkar ibili eta jolastu abenduaren 11 baino lehen. Sariak REAS Red de redes batzarrean aurkeztuko ditugu.

Saretu eta parte hartu!

1995 - 2020  
**25 reas**  
red de redes de economía  
alternativa y solidaria

¿CONOCES LOS ENTRESIJOS DE REAS Y LA ESS?

JUEGA EL TRIVIAL DE LA ECONOMÍA SOLIDARIA

entra y enrédate con la ESS:

[Click aquí](#)

25 reas 1995 - 2020